# ARABA
## ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK
## 2021

### Ondare irisgarri eta inklusiboa

# GUZTION ONDAREA, DENOK PARTE!

Ondarearen europako jardunaldiak
Jornadas europeas de patrimonio

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

GIPUZKOA
KULTURA

ARABA

# ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK 2021

## ONDARE IRISGARRI ETA INKLUSIBOA

## GUZTION ONDAREA, DENOK PARTE

Ondarearen Europako Jardunaldiak herritarrek parte hartzeko ateak irekitzeko proiektua da, eta 1991tik antolatzen dira, Europako Kontseiluaren ekimenez, Europar Batasunarekin lankidetzan.

Helburu da ondare komuna sustatzea, ezagutza partekatzea eta herritarrak sentsibilizatzea gure kulturaren ondare materiala eta immateriala babesteko eta zaintzeko beharrari buruz.

Ondare kulturala ez ohi da pertsona edo erakunde bakar baten lana izan. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu Arabako eragile kultural eta sozial guztien lankidetza izatea jardunaldi berezi horietan.

# 2021 urria

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | |
| 4 | **HITZALDIA:** Ahaztutako historiak. Euskaldunak Alemania naziko kontzentrazio-esparruetan (1940-1945).<br>BiBat Museoa.<br>VITORIA-GASTEIZ.<br>5 | 6 | **ZINEMA ARKEOLOGIKOA.**<br>FICAB Ibiltaria.<br>«Des-iraungitzea»<br>BiBat Museoa.<br>VITORIA-GASTEIZ.<br>7 |
| 11 | 12 | **BISITA GIDATUA:** Gasteiz: juduen aztarna Erdi Aroko hirigunean<br>Matxete plaza.<br>VITORIA-GASTEIZ.<br>13 | 14 |
| 18 | **HITZALDIA:** Ahaztutako historiak. Historia de la comunidad gitana en Euskadi.<br>BiBat Museoa.<br>VITORIA-GASTEIZ.<br>19 | **HITZALDIA:**<br>Ezpata eta dagaren eskrima<br>Arabako Arma Museoa.<br>VITORIA-GASTEIZ.<br>20 | **ZINEMA ARKEOLOGIKOA.**<br>FICAB Ibiltaria.<br>«Errepideak, Inperioaren sare neuronala»<br>BiBat Museoa.<br>VITORIA-GASTEIZ.<br>21 |
| 25 | **HITZALDIA:**<br>Arabako Erdi Aroko damak. Beren bizitzaren kontakizuna genero-ikuspegiaren bidez berreraikiz.<br>BiBat Museoa.<br>VITORIA-GASTEIZ.<br>26 | **HITZALDIA:** Arabako Arma Museoko japoniar armadura baten zaharberritzea<br>Arabako Arma Museoa.<br>VITORIA-GASTEIZ.<br>27 | **ZINEMA ARKEOLOGIKOA.**<br>FICAB Ibiltaria.<br>«Gizon boteretsuak - Emakume ezinduak?»<br>BiBat Museoa.<br>VITORIA-GASTEIZ.<br>28 |

## Urria osoan
## Arabako museoetarako bisita gidatuak

**Nori zuzendua:** ikusmen-, mugikortasun- edo adimen-desgaitasuna duten pertsonei.

**Eguna eta ordua:** hitzartu beharrekoa, aukeraren arabera.

**Bisita-eskaera:** **educacionmuseosyarqueologia@araba.eus**

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Pertsona gorrentzako **MUSIKA-TAILERRA:** sentitzeko musika.<br>Jesus Guridi Kontserbatorioa. VITORIA-GASTEIZ<br><br>**BISITA GIDATUA:** Guda karlistaren aztarnak Guardian.<br>Udaletxea. GUARDIA.<br><br>**ERMUALDEKO HISTORIA-JARDUNALDIAK.**<br>Santa María del Yermo - LAUDIO.<br>2 | **IBILBIDE NATURALA:** Done Jakue bidea Araban (bidearen zati bat). San Pedro eliza. BURGELU.<br><br>**ERMUALDEKO HISTORIA-JARDUNALDIAK.**<br>Santa María del Yermo - LAUDIO.<br>3 |
| 8 | **HITZALDIA:** Gaubeako lehen adierazpen erlijiosoen ikuspegi pertsonala<br>Udaletxea. URIBARRI GAUBEA.<br><br>**ERMUALDEKO HISTORIA-JARDUNALDIAK.**<br>Santa María del Yermo - LAUDIO.<br>9 | 10 |
| **LGTB+ zinema.**<br>«ANDER»<br>Harresi Aretoa.<br>AGURAIN.<br>15 | **BISITA GIDATUA:** San Pedroko elizpera bisita, inoiz ikusi ez duzun bezala.<br>San Pedro eliza. VITORIA-GASTEIZ.<br><br>**LGTB+ zinema.** «ANDER»<br>BiBat Museoa. VITORIA-GASTEIZ.<br><br>**ERMUALDEKO HISTORIA-JARDUNALDIAK.**<br>Santa María del Yermo - LAUDIO.<br>16 | 17 |
| 22 | **BISITA GIDATUA:** «Hezkuntza-inklusioaren adibide bat: Lantenoko Eskola Zaharren sorrera» Eskola zaharrak. LANTENO.<br><br>**HITZALDIA:** Hezkuntza-inklusioaren adibide bat: 1932ko misio pedagogikoa Trebiñuko Konderrian (Añastro, Trebiñu eta Armentia Trebiñu).<br>Gizarte-etxea. TREBIÑU.<br><br>**ERMUALDEKO HISTORIA-JARDUNALDIAK.**<br>Santa María del Yermo - LAUDIO.<br>23 | 24 |
| 29 | **IBILBIDE NATURALA:** Prado de La Paúl hezegunea.<br>Guardiako futbol-zelaia. GUARDIA.<br><br>**ERMUALDEKO HISTORIA-JARDUNALDIAK.**<br>Santa María del Yermo - LAUDIO.<br>30 | **BISITA GIDATUA:**<br>Lazarraga Kultur Gunea - Zalduondora bisita gidatua<br>Lazarraga Kultur Gunea.<br>ZALDUONDO.<br>31 |

Bibat Museoa, Arkeologia Museoa eta Fournier Karta Museoa
**945 203 707**

Natura Zientzien Museoa
**945 181 924**

Arma Museoa
**945 181 925**

Arte Ederren Museoa
**945 181 918**

# 2021eko urriaren 2a, larunbata.

# Pertsona gorrentzako MUSIKA-TAILERRA: sentitzeko musika.

- **Ordua:** 10:00 / 12:00.
- **Hizkuntza:** gaztelania.
- **Lekua:** Jesus Guridi Kontserbatorioa (Konstituzio plaza, 9, Vitoria-Gasteiz).
- **Hizlariak:** Pamplona Jazz.
- **Aforoa:** murriztua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.
- **Izena emateko epea:** jarduera hasi baino 48 ordu lehenago arte.
- **Erreserba:** 945 101 070 / info@kalearte.com

*Giza komunitate orok duen ondare immaterial garrantzitsuenetako bat bere musika da. Jarduera honen helburua da ondare hori gure gizarteko kolektibo guztiek gozatu ahal izatea.*

*Ez entzuteak ez du esan nahi pertsona gor batek ezin duenik musikaz entzule baten intentsitate berarekin gozatu. Instrumentuek sortutako bibrazioen bidez, entzumen-urritasuna duten pertsonak musikaren magiaz gozatzeko eta sentitzeko gai dira.*

*Perkusio, txalo eta gorputz perkusiozko instrumentuen bidez lagunduta erritmo ariketak egingo ditugu, jazz laukote batek swing estiloa joz nola funtzionatzen duen ulertzea eta sentitzea ahalbidetuko diguten patroiak egitera iristeko.*

**ANTOLATZAILEA**

JESÚS GURIDI



**Irisgarritasuna**

Entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzat eskuragarri

Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria

Gurpil-aulkietarako irisgarria

# 2021eko urriaren 2a, larunbata.

## BISITA GIDATUA:
## Guda karlistaren aztarnak Guardian.

- **Ordua:** 10:00.
- **Hizkuntza:** gaztelania.
- **Elkargunea:** Guardia. Udaletxea (Plaza Nagusia, 1).
- **Hizlaria:** Gorka Martín.
- **Antolatzailea:** Arabako Arkeologia Institutua.
- **Aforoa:** Murriztua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.
- **Izena emateko epea:** jarduera hasi baino 48 ordu lehenago arte. Zuzena?
- **Erreserba:** secretaria@iaa-aai.org

**ANTOLATZAILEA**

*Ibilbidea Arabako Arkeologia Institutuak 2021ean martxan jarri duen «Arkeologia Berriak» programaren parte da. Ikasteko, interpretatzeko eta ikertzeko modu berriei esker, hain ezagunak ez zaizkigun termino eta aldi historikoak aurkituko ditugu, oharkabean pasatzen zaizkigun gure ondarearen alderdiak hobeto testuinguruan kokatzen eta ulertzen lagunduko digutenak.*

*Guardiako hiribildua oso ezaguna da bere kaleek gordetzen duten Erdi Aroko ondare aberatsagatik, bereziki inguruko harresi eta dorreak. Hala ere, bere alde zaharrean ezkutatuta, oraindik ikus daitezke Azken Karlistaldian jasan zituen setio eta guduen ondorioak.*

*Irteeran zehar karlistek eta liberalek 1872 eta 1876 artean borrokatu zuten lekuetara joango gara, hain ahaztua eta baztertua izan zen gatazka honek euren ondarean eragin zuen arrastoa aurkituz.*



# 2021eko urriaren 3a, igandea.

## IBILBIDE NATURALA:
## Done Jakue bidea Araban (bidearen zati bat).

- **Zailtasuna:** ertaina (10 urtetik gorako pertsonentzat).
  Ibilbidea gurpil-aulkian egin daiteke (6 km).
- **Ordua:** 10:00. (2 ordu inguru iraungo du).
- **Hizkuntza:** gaztelania.
- **Elkargunea:** Burgelu. San Pedro eliza (San Pedro kalea, z/g).
- **Gidaria:** Andoni Llosa (Fauneando S.L.).
- **Aforoa:** Murriztua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.
- **Izena emateko epea:** jarduera hasi baino 48 ordu lehenago arte.
- **Erreserba:** 945 101 070 / info@kalearte.com

*Ibilbideak Arabako Lautadako ingurune naturala, antzinatik oso gizatiartua, ezagutzen lagunduko digu. Donejakue bidearen zati bat aprobetxatuko dugu bertako natura-ondarea osatzen duten animalia- eta landare-espezieetan pixka bat sakontzeko: zereal-soroak, ezpondak, harizti-uharteak eta ur-putzu txikiak. Natura «diskretua» behatzen ikasiko dugu.*

- **Gomendioak:**
  Arropa erosoarekin eta kirol-oinetakoekin joatea.
  Eraman ura.



**Irisgarritasuna**



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria



Gurpil-aulkietarako irisgarria

# 2021eko urriaren 5a, asteartea.

## HITZALDIA:
## Ahaztutako historiak. Euskaldunak Alemania naziko kontzentrazio-esparruetan (1940-1945).

- **Hizlaria:** Etxahun Galparsoro (Lazkaoko Beneditarren Fundazioko teknikaria eta EHUko doktoregaia).
- **Ordua:** 19:00.
- **Lekua:** BiBat Museoa. (Aiztogile kalea 54, Vitoria-Gasteiz).
- **Aforoa:** Murriztua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.
- **Izena emateko epea:** jarduera hasi baino 48 ordu lehenago arte.
- **Erreserba:** 945 101 070 / info@kalearte.com

*1940 eta 1945 artean berrehun eta berrogeita hamar euskaldun baino gehiago deportatu zituzten naziek Hirugarren Reicharen kontrentrazio eremuetara, hara iritsitakoan sarraskitzeko asmoz. Biktima horiek bizi izan zutena ahaztu egin da eta haien historia gure memoria kolektiboaz kanpo geratu da. Hitzaldi honen bidez, nazismoaren biktima euskaldunen berri izango dugu.*

**Irisgarritasuna**

Gurpil-aulkietarako irisgarria




CARTE DE DÉPORTÉ POLITIQUE
TITULAIRE: BILBAO Marcel

# 2021eko urriaren 7a, osteguna.

## ZINEMA ARKEOLOGIKOA. Bidasoako Zinema Arkeologikoaren Nazioarteko Jaialdi Ibiltaria.

- **Dokumentala:** Des-iraungitzea
- **Fitxa teknikoa:**
  - **Urtea:** 2020.
  - **Iraupena:** 59 minutu.
  - **Ekoizpen-herrialdea:** Espainia.
  - **Hizkuntza:** gaztelania.
  - **Zuzendaria:** Alfonso Par.
  - **Ekoizpena:** Turkana Films eta FECYT, Zientzia eta Teknologiaren Espainiako Fundazioa.
- **Ordua:** 19:00.
- **Lekua:** BiBat Museoa. (Aiztogile kalea 54, Vitoria-Gasteiz).
- **Aforoa:** Murriztua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.
- **Izena emateko epea:** jarduera hasi baino 48 ordu lehenago arte.
- **Erreserba:** 945 101 070 / info@kalearte.com

*Desagertutako espezieak berpiztu ditzakegu? Zertarako? Patricia Sornosa monologuistak eta Eudald Carbonell arkeologo ospetsuak bidaia liluragarri batekin bat egitera gonbidatzen gaituzte, dinosauroen artean ibiltzera, historiaren lehen desagerpena nola gertatu zen deskubritzera, Siberiako bazter izoztuetan mamutak bilatzera, Historiaurretik berpiztutako animaliei aurre egitera edo neandertal batekin aurrez aurre aurkitzera eramango gaituena.*




**Irisgarritasuna**

Gurpil-aulkietarako irisgarria

FICAB

# 2021eko urriaren 9a, larunbata.

## HITZALDIA: Gaubeako lehen adierazpen erlijiosoen ikuspegi pertsonala.

- **Hizlaria:** Juan Carlos Abascal Ruiz de Aguirre.
- **Ordua:** 18:00.
- **Lekua:** Uribarri Gaubea. Gaubeako udaletxeko erabilera anitzeko aretoa (Jesús Guinea arkitektoa, 46).
- **Aforoa:** libre, edukiera bete arte.
- **Antolatzailea:** Gaubeako Turismo Patronatua.

*Hitzaldiaren bidez Gaubeako haraneko historia erlijiosoa berreskuratu nahi da, kristaua ez ezik, aurrekoa ere bai. Neolito Aroko pertsonetatik eta antzinako espiritualtasunetik abiatuta, autrigoi eta erromatar garaietatik igaroko gara Erdi Aroan amaitu arte. Erlijio pagano eta animistetatik kristautasunera eremitorioen bidez iritsiko gara. Leku berezi hauetan, erlijio kristau ofizialetik baztertuak izan ziren pertsonak bizi izan ziren, ez zeudelako ados eliza ofizialaren boatoarekin eta nabarmenkeriarekin, eta botere zibilari laguntzeari uko egin ziotelako.*

**Irisgarritasuna**

Gurpil-aulkietarako irisgarria

**ANTOLATZAILEA**

PATRONATO DE TURISMO Valdegovía Gaubea TURISMO PATRONATUA



## 2021eko urriaren 13a, asteazkena.

# BISITA GIDATUA: Vitoria-Gasteiz: juduen aztarna Erdi Aroko hirigunean.

- **Ordua:** 11:00.
- **Hizkuntza:** gaztelania.
- **Elkargunea:** Vitoria-Gasteiz. Matxete plaza.
- **Gidaria:** Kalearte Turismo y Cultura S.L.L.
- **Aforoa:** Murriztua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.
- **Izena emateko epea:** jarduera hasi baino 48 ordu lehenago arte.
- **Erreserba:** 945 101 070 / info@kalearte.com

*Erdi Aroko almendraren kaleen artean, 1492 arte, Gasteizen, Aljama zegoen, Euskadiko garrantzitsuena. Haren zati handi bat Barnekale Berria (Juderia) kaleko hormen artean bizi izan zen, baina ez denak. Bisitan kale horren bilakaera ezagutuko dugu, Gasteizko komunitate juduaren ezaugarriak eta legeak ezagutuko ditugu, eta, horrez gain, Tello juduaren epaiketa bezala, nola auzitegiak eta, oro har, gizartea ez ziren zuzenak izan kolektibo horrekin.*

*Ibilbidean, komunitate hebrearra ezagutzeaz gain, beren fedearen apostasia egitea eta katolizismoa besarkatzea erabaki zuten pertsonak ere ezagutuko ditugu. Familia aipagarrienen artean Bilboko Sánchez familia dago, kordoi Etxearen jabea.*




**Irisgarritasuna**



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria



Gurpil-aulkietarako irisgarria

# 2021eko urriaren 15a, ostirala.

## LGTB+ zinema. «ANDER».




- **Filma:** Ander.
- **Fitxa teknikoa:** • **Urtea:** 2009. • **Iraupena:** 124 min.
  - **Hizkuntza:** Elebiduna Gaztelaniaz Euskaraz (Gaztelaniazko azpitituluak).
  - **Zuzendaria:** Roberto Castón.
  - **Ekoizpena:** Berdindu / Bitart / Ilusión Óptica.
- **Aurkezpena:** Roberto Castón y Josean Bengoetxea.
- **Ordua:** 18:00.
- **Lekua:** Agurain. Harresi Aretoa (Zapateria kalea, 15).
- **Aforoa:** libre, edukiera bete arte.

*Ander euskaraz filmatutako lehen homosexuala izan zen.*

*Berrogeialdiko baserritar batek ohiko bizimodua darama bizikleta fabrika bateko langile postuaren eta baserriko nekazaritza lanen artean, eta bertan bizi da amarekin eta arrebarekin batera. Egun batean istripu bat izan zuen eta hanka bat hautsi zuen; hori dela eta, amak mesfidati jokatu arren, familiak Peruko etorkin bat kontratatzea erabaki zuen, José, baserriko lanak egiteko. Joseren etorrerak etxeko bizitza eta Anderren bizitza aldatzen ditu, izan ere, ez zekien sentimenduak sortzen hasi zaizkio, eta barne-gatazka handia eragin dio. Peiorekin, bere lagun onenarekin eta eskualdeko prostituta den Remerekin duen harremana ere aldatu egiten du pertsonaia honek, eta jarrera hartzera behartzen ditu.*

**LAGUNTZAILEAK**

AGURAIN UDALA

KULTURAGURAIN
batzen gaituena

**Irisgarritasuna**

Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria

Gurpil-aulkietarako irisgarria



# 2021eko urriaren 16a, larunbata.

## BISITA GIDATUA:
## San Pedroko elizpera bisita, inoiz ikusi ez duzun bezala.

- **Hizlaria:** Diana Pardo (Arabako Zaharberritze Zerbitzua) eta Kalearte Turismo eta Kultura.
- **Ordua:** 11:30.
- **Lekua:** San Pedro eliza (Jesusen Zerbitzarien fundatzailea, 2. Vitoria-Gasteiz).
- **Aforoa:** murriztua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.
- **Izena emateko epea:** jarduera hasi baino 48 ordu lehenago arte.
- **Erreserba:** 945 101 070 / info@kalearte.com
- **Laguntzailea:** Gasteizko Elizbarrutiko Ondare Historiko Artistikoaren Ordezkaritza.

*San Pedro elizako atari zaharra Euskal Herriko eskultura gotiko multzo garrantzitsuenetako bat da. XIV. mendeko obra interesgarri honek Jesusen? haurtzaroko ziklo bat eta San Pedro apostoluaren bizitzaren narrazio osoa biltzen ditu.*

*Bisita hau elizpean hasiko da, behealdeko xehetasunak ezagutuz. Ondoren, pantaila baten eta bereizmen handiko irudien laguntzaz, begi hutsez ikusi ezin diren xehetasunez gozatu ahal izango dugu, eta, Diana Pardoren eskutik, egin diren esku-hartzeak eta narriadurak ezagutu ahal izango ditugu.*

**LAGUNTZAILEA**

OBISPADO DE VITORIA · GASTEIZKO GOTZAINDEGIA
DIOCESIS+ Patrimonio histórico-artístico · Historia-arte ondarea



### Irisgarritasuna

Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen eskuragarritasuna..

Gurpil-aulkietarako irisgarria

# 2021eko urriaren 16a, larunbata.

## LGTB+ zinema. «ANDER».




- **Filma:** Ander
- **Fitxa teknikoa:** • **Urtea:** 2009. • **Iraupena:** 124 min.
  - **Hizkuntza:** Elebiduna Gaztelaniaz Euskaraz (Gaztelaniazko azpitituluak).
  - **Zuzendaria:** Roberto Castón.
  - **Ekoizpena:** Berdindu / Bitart / Ilusión Óptica.
- **Aurkezpena:** Roberto Castón y Josean Bengoetxea.
- **Ordua:** 18:00.
- **Lekua:** BiBat Museoa. (Aiztogile kalea 54, Vitoria-Gasteiz).
- **Aforoa:** murriztua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.
- **Izena emateko epea:** jarduera hasi baino 48 ordu lehenago arte.
- **Erreserba:** 945 101 070 / info@kalearte.com

*Ander izan zen homosexualitatearen gaiaz euskaraz filmatutako lehen filma.*

*Berrogei urtez gorako baserritar batek ohiko bizimodua darama, bizikleta fabrika bateko langile postuaren eta baserriko nekazaritza lanen artean, eta bertan bizi da amarekin eta arrebarekin batera. Egun batean istripu bat izan zuen eta hanka bat hautsi zuen. Hori dela eta, familiak, amaren mesfidantza gorabehera, Peruko etorkin bat kontratatzea erabaki zuen, José, baserriko lanak egiteko. Joséren etorrerak etxeko bizitza eta Anderren bizitza aldatzen ditu, izan ere, Anderri zirenik ere ez zekien sentimenduak sortzen hasi zaizkio, eta barne-gatazka handia eragin dio. Peiorekin, bere lagun onenarekin, eta eskualdeko prostituta den Remerekin duen harremana ere aldatu egiten du pertsonaia honek, eta jarrera hartzera behartzen ditu.*

### Irisgarritasuna

Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria

Gurpil-aulkietarako irisgarria



# 2021eko urriaren 19a, asteartea.

## HITZALDIA: Ahaztutako historiak. Historia de la comunidad gitana en Euskadi.

- **Hizlaria:** David Martín. (Historian doktorea, EHUko Valentín Foronda Gizarte Historiako Institutuko eta Nafarroako Unibertsitateko ICSko kidea).
- **Ordua:** 19:00.
- **Lekua:** BiBat Museoa. (Aiztogile kalea 54, Vitoria-Gasteiz).
- **Aforoa:** Murriztua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.
- **Izena emateko epea:** jarduera hasi baino 48 ordu lehenago arte.
- **Erreserba:** 945 101 070 / info@kalearte.com

*XV. mendean Euskal Herrira iritsi zirenetik gaur egun arte, ijitoak (buhameak, motzaileak, asiaganbariak, egyptiarrak…), mestizajearen, estigmatizazio betierekoaren, derrigorrezko banaketaren, jazarpenaren eta integrazioaren artean mugitu dira. David Martínek bost mende baino gehiagoko historia errepasatu du, eta gai hauek aztertu ditu: nola iritsi ziren, zer lanbide zituzten, zer hizkuntza zuten, zer genealogia zituzten, zer nolako inkisizio-errepresioa jasan zuten eta ijitoen aurkako zer legeri egin zioten aurre, zer nolako parte-hartzea izan zuten Gerra Zibilean… Ikerketa lan neketsu baten emaitza da, leku komunetan eta estereotipo negatiboetan erortzeko lan zaila saihesten duena, baina, aldi berean, biktimismotik eta doako gorespenetik ihes egiten duena, ijitoen idiosinkrasia errespetatuz eta bestela egiazko interpretaziorik izango ez lukeen informazioa iragaziz.*



**Irisgarritasuna**

Gurpil-aulkietarako irisgarria



# 2021eko urriaren 20a, asteazkena.

## HITZALDIA: Ezpata eta dagaren eskrima.

- **Tokia:** Arabako Arma Museoa.
- **Ordua:** 19:00.
- **Hizkuntza:** gaztelania.
- **Hizlaria:** Iker Alejo Suescun, egilea.
- **Izena emateko epea:** jarduera hasi baino 48 ordu lehenago arte.
- **Erreserba:** 945 101 070 / info@kalearte.com



*Ezpata eta daga eskrima. Mende bete katiluko ezpata eta haize-oihaldun daga (1628 – 1731) liburuaren aurkezpena. Liburu honetan, tratatu historikoetan oinarritutako eskrima historikoaren teknika ezagutarazteaz gain, egileari aztertzeko balio izan dioten Arabako Arma Museoaren funtsetako piezak ere, azaltzen dira.*

**Irisgarritasuna**



Gurpil-aulkietarako irisgarria

# 2021eko urriaren 21a, osteguna.

## ZINEMA ARKEOLOGIKOA. Bidasoako Zinema Arkeologikoaren Nazioarteko Jaialdi Ibiltaria.

- **Dokumentala:** Errepideak, Inperioaren sare neuronala.
- **Fitxa teknikoa:**
  - **Kultura:** Erromatar Inperioa.
  - **Urtea:** 2019.
  - **Iraupena:** 53 minutu.
  - **Hizkuntza:** Gaztelania.
  - **Ekoizpen-herrialdea:** Espainia.
  - **Zuzendaria:** José Antonio Muñiz.
  - **Ekoizpena:** Structuralia, RTVE eta Digivisión.
- **Ordua:** 19:00.
- **Lekua:** BiBat Museoa. (Aiztogile kalea 54, Vitoria-Gasteiz).
- **Aforoa:** murriztua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.
- **Izena emateko epea:** jarduera hasi baino 48 ordu lehenago arte.
- **Erreserba:** 945 101 070 / info@kalearte.com

*Dokumental honetan, Isaac Moreno Herri Lanetako ingeniariak Espainia eta Frantziako lautadak zeharkatuko ditu, eta bertan, erromatar galtzadek jarraitutako lekuak eta aztarnak ikusiko ditugu.*

*Erromatar inperioak inoiz egin gabea zen teknologia eta hedadura zuen errepide sarea planifikatu zuen. Bere helburu nagusiak konkistatutako herriak kontrolatzea eta merkataritza eta lehengaiak «caput mundi»ra (Erromara) iristea sustatzea izan ziren arren, galtzadek eta bideek lurraldea egituratu zuten, kulturak hurbildu zituzten eta estatu erromatarrean eta bertako kulturan integratzen lagundu zuten.*

*Dokumentalean, animazio eta irudi digitalen laguntzaz, azpiegitura horiek teknika harrigarri eta aurreratua zutela ulertuko dugu. Ondoren, gurdi erromatarren diseinu aurreratuaren, funtzionaltasunaren eta eraginkortasunaren xehetasunak ere ezagutuko ditugu.*




**Irisgarritasuna**

Gurpil-aulkietarako irisgarria

# 2021eko urriaren 23a, larunbata.

## BISITA GIDATUA: «Hezkuntza-inklusioaren adibide bat: Lantenoko Eskola Zaharren sorrera».

- **Ordua:** 11:00 / 12:30.
- **Hizkuntza:** gaztelania.
- **Elkargunea:** Lanteno. Eskola zaharrak (Pizparrutxi auzoa, 35).
- **Gida:** Luis Padura Elorza (Valle de Llanteno elkarte artistikoa).
- **Organiza:** Valle de Llanteno elkarte artistikoa eta Lantenoko kontzejua.
- **Aforoa:** Murriztua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.
- **Izena emateko epea:** jarduera hasi baino 48 ordu lehenago arte.
- **Erreserba:** 945 101 070 / info@kalearte.com

*XIX. mendeak aldaketa sakonak ekarri zituen Arabara. Mundua azkar aldatu zen, eta aldaketa zorabiagarrietara egokitzeko tresna bakarra hezkuntza izan zen. Ez zen beti erraza gure herrietan prestakuntza jasotzea, horregatik, eskola bat eraikitzea beti izan zen albiste ona. Lantenoko eskola ikusgarriak 1897an eraiki ziren María Francisca de Murga y Michelena andrearen y Antonio de Vitórica y Revilla jaunaren eskuzabaltasunari esker..*

*Bisita ez da iraganerako ibilbide malenkoniatsua izango, gaur egun arautu gabeko kultura- eta hezkuntza-jarduera handia baitu eraikinak. Lantenoko Kontzejuari eta Valle de Llanteno Elkarte Artistikoari esker, eskoletan tailerrak, ikastaroak eta erakusketak egiten dira, bailarako biztanleak diziplina desberdinetan trebatzeko.*

**Irisgarritasuna**

Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria

**ANTOLATZAILEA**

LANTENO
Administrazio Batzarra
Junta Administrativa
LLANTENO



2021eko urriaren 23a, larunbata.

# HITZALDIA:
# Hezkuntza-inklusioaren adibide bat: 1932ko misio pedagogikoa Trebiñuko Konderrian (Añastro, Trebiñu eta Armentia Trebiñu).

- **Hizlaria:** Roberto Alonso García. (Maisu erretiratua eta Miranda de Ebroko Cantera Irakaslearen Kultur Fundazioko kidea).
- **Ordua:** 18:00.
- **Lekua:** Trebiñu. Gizarte-etxea. Erabilera anitzeko aretoa (La Magdalena kalea-El puente z/g).
- **Aforoa:** Librea, edukiera bete arte.
- **Antolatzailea:** Ibita (Trebiñuko Ikasketen Institutua) eta Trebiñuko Udala.

*XX. mendearen hasieran, hirietarako exodoa hasi zen. Bizi-baldintza zailek, landa-eremuko lan-baldintzak hobetzeko aukera urriek eta hezkuntzarako sarbiderik ezak landa-eremuko biztanleei aukerak kentzen zizkieten. II. Errepublikako gobernuak Misio Pedagogikoen Patronatua sortu zuen analfabetismoa arintzeko eta nekazari munduan balio demokratikoak sartzeko.*

*Hitzaldi honen bidez, 1932an Trebiñuko Konderrian izan zen Misio Pedagogikoa ezagutaraziko du, eskola egonkorrak izan arren, hiriekiko atzerapen kultural eta hezitzailea bizi zuen udalerria. Proiektu pedagogikoa Trebiñu, Añastro eta Armentia Trebiñu herrietan garatu zen eta María Diez de Ure eta Hermógenes de la Fuente eskola-maisuek jaso zuten.*



**Irisgarritasuna**

Gurpil-aulkietarako irisgarria

**ANTOLATZAILEAK**

Instituto de estudios treviñeses
Trebiñuko ikasketen institutua

Ayuntamiento de Condado de Treviño
Trebiñuko Konderriko Udala

# 2021eko urriaren 26a, asteartea.

## HITZALDIA: Arabako Erdi Aroko damak. Beren bizitzaren kontakizuna genero-ikuspegiaren bidez berreraikiz.

- **Hizlaria:** Isabel Mellén Rodríguez (Álava Medieval- Erdi Aroko Araba).
- **Ordua:** 19:00.
- **Lekua:** BiBat Museoa. (Aiztogile kalea 54, Vitoria-Gasteiz).
- **Aforoa:** Murriztua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.
- **Izena emateko epea:** jarduera hasi baino 48 ordu lehenago arte.
- **Erreserba:** 945 101 070 / info@kalearte.com

*Historiaren gaur egungo narratiba nagusia, XVIII. mendetik aurrera sortua, emakumeak bere diskurtsotik kanpo uzten saiatu da, baina, gainera, Erdi Arokoekin ankerki jokatu du, eta haien gainean aurreiritzi eta estereotipo faltsu batzuk isuri ditu, haien boterea, gertakarietan esku hartzeko gaitasuna eta motor historiko gisa duten garrantzia ezkutatzeko. Hitzaldi honetan historiaren kontakizuna kutsatzen duten faltsukeria horietako batzuk desegiten saiatuko gara, Arabako Erdi Aroko andreen benetako ahotsa argitara ateratzeko.*

**Irisgarritasuna**

Gurpil-aulkietarako irisgarria





# 2021eko urriaren 27a, asteazkena.

## HITZALDIA: Arabako Arma Museoko japoniar armadura baten zaharberritzea.

- **Tokia:** Arabako Arma Museoa.
- **Ordua:** 19:00.
- **Hizkuntza:** gaztelania.
- **Hizlariak:** Isabel Ortiz Errasti, Itziar Viana, Itsaso Garrido.
- **Izena emateko epea:** jarduera hasi baino 48 ordu lehenago arte.
- **Erreserba:** 945 101 070 / info@kalearte.com

*Samurai baten armadura zaharberritzeko tratamendua oso konplexua da, altzairua, kobrea, eztainua, urrea, zeta, kotoia, larrua edo adarra moduko materialekin egindako pieza baita.*

**Irisgarritasuna**

Gurpil-aulkietarako irisgarria



# 2021eko urriaren 28a, osteguna.

## ZINEMA ARKEOLOGIKOA. Bidasoako Zinema Arkeologikoaren Nazioarteko Jaialdi Ibiltaria.

- **Dokumentala:** Mächtige Männer Ohnmächtige Frauen? (Gizon boteretsuak - Emakume ezinduak?) .
- **Fitxa teknikoa:**
  - **Urtea:** 2019.
  - **Iraupena:** 52 minutu.
  - **Ekoizpen-herrialdea:** Alemania.
  - **Hizkuntza:** ingelesa (azpitituluak gaztelaniaz).
  - **Zuzendaria:** Birgit Tanner eta Carsten Gutschmidt. Edo Daniela Pulverer eta Boris Raimen ideia batean oinarritua.
  - **Garaia:** Historiaurrea, Europako eta Asiako Antzinako historia eta Erdi Aroko historia.
  - **Ekoizpena:** ZDF/Jens Boeck.
- **Ordua:** 19:00.
- **Lekua:** BiBat Museoa. (Aiztogile kalea 54, Vitoria-Gasteiz).
- **Aforoa:** Murriztua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.
- **Izena emateko epea:** jarduera hasi baino 48 ordu lehenago arte.
- **Erreserba:** 945 101 070 / info@kalearte.com

*Ikerkelari-belaunaldi berri bat azterketa-metodo modernoak erabiltzen ari da gizonen eta emakumeen eredu klasikoak baliagarriak diren frogatzeko.*

*Birgit Tanner eta Carsten Gutschmidten dokumentalak, azkenean, gizonek ehizatu eta emakumeek bildu egiten duten klixea uxatzen du. Adibide bat, zineforum honetan ezagutu ahal izango ditugun beste askoren artean, Suediako kasu bat da: bikingoen Birka hirian. Arkeologoek, ezpatak, zaldiak, arkuak eta geziak zituen hilobi bat aurkitu zuten mendearen hasieran. Denbora luzez inork ez zuen bikingo honen nortasuna zalantzan jarri. Gizon bat zen eta gerlari handia izango zen. Baina 2017an kontrakoa erakutsi zuten DNA analisi berriek. Hilobia emakume batena izan zen. Armada gidatu zuen? Salbuespena izan zen ala beste emakume asko bezalakoa? Ez galdu dokumental kitzikagarri hau.*

### Irisgarritasuna

Gurpil-aulkietarako irisgarria



2021eko urriaren 30a, larunbata.

# IBILBIDE NATURALA:
# Prado de La Paúl hezegunea.

- **Zailtasuna:** Ertaina (10 urtetik gorako pertsonentzat).
- Ibilbidea gurpil-aulkian egin daiteke (4 km).
- **Ordua:** 10:00. (2 ordu inguru iraungo du).
- **Hizkuntza:** Euskara.
- **Elkargunea:** Guardia. Guardiako futbol-zelaiko parkinga.
- **Gida:** Andoni Llosa (Fauneando S.L.).
- **Aforoa:** Murriztua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.
- **Izena emateko epea:** jarduera hasi baino 48 ordu lehenago arte.
- **Erreserba:** 945 101 070 / info@kalearte.com

*Ibilbide zirkular honek Arabako Errioxako Guardiako urmaeletako Biotopo Babestuaren inguruan dagoen «La Paúl belardiaren» natura-ondarea erakutsiko digu. Inguru hau benetako leku joria da, herriko mahasti ugarien artean basa-bizitzaren oasi bat. Udazkenean bisitatuko dugu, hegazti migratzaile batzuk behatzeko garai aproposa dena. Atzealdean, Toloño mendilerroaren marko paregabea izango dugu.*

- **Gomendioak:** Arropa erosoarekin eta kirol-oinetakoekin joatea.
  Eraman ura.



**Irisgarritasuna**



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria



Gurpil-aulkietarako irisgarria

# 2021eko urriaren 31a, igandea.

## BISITA GIDATUA: Lazarraga Kultur Gunea - Zalduondora bisita gidatua.

- **Ordua:** 11:00 euskaraz. / 12:30 gaztelaniaz.
- **Lekua:** Zalduondo. Lazarraga Kultur Gunea. (Iturribarri auzoa, 9).
- **Gida:** Lurdes Lekuona Laburu (Zalduondoko Kultur Elkartea).
- **Aforoa:** Murriztua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.
- **Izena emateko epea:** jarduera hasi baino 48 ordu lehenago arte.
- **Erreserba:** 945 101 070 / info@kalearte.com
- **Antolatzailea:** Zalduondoko Kultur Elkartea.

*Lazárraga-Amézaga jauregia (gaur egun museo-kulturgunea) beti izan da euskal kulturaren toki nabarmena. Gordetzen duen bildumagatik ez ezik, XVI. mendeko eraikin eder bat delako, grisailaz margotutako margolan zoragarriak dituena, bere edukiagatik ere bai. Altxorraren kutxa bat balitz bezala, inauteri tradizionalen, gure lurraldeko eta euskararen berezko lanbide eta artisautzen aberastasunaren berri ematen digu.*

*Etxean Lazarraga eskuizkribuaren interpretazio zentroa dago, XVI. mendeko idatzi bat, garai hartan euskarak Araban zuen errotzea erakusten duena eta Joan Perez Lazarraga (+1567) poeta arabar ezezagunari, gutxienez, beste pixka bat gehiago zabaltzen laguntzen diguna.*

*Hizkuntzak, zalantzarik gabe, era guztietako errealitateak sortzen ditu. Ikusten edo sentitzen duguna izendatzeak identitatea ematen die gauzei, eta eskema kontzeptualen inguruan antolatzen ditu, dena hobeto eta azkarrago ulertarazteko. Gure hizkuntzak, haien terminoak eta haien aldaketak ezagutzeak, eta haien inguruan Arabako antzinako komunitateak nola integratu ziren jakiteak lagundu diezaguke gizarte errespetagarriagoa, inklusiboagoa eta integratzaileagoa izaten, beren aniztasunean*

**Irisgarritasuna**

Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria

**ANTOLATZAILEA**





## Urriak 2 octubre / Urriak 3 octubre

ALBERTO SANTANA EZKERRA

«Ermualde sagardogile. Grandes máquinas de sidra en casas, caseríos y casas-torre vascas, hace 500 años»

## Urriak 9 octubre

JESÚS MUÑIZ PETRALANDA

«La imagen de Santa María del Yermo: una obra maestra del tardogótico en el País Vasco»

## Urriak 16 octubre

SERGIO ESCRIBANO RUIZ

«MMXX Anno Domini, zaharrak berri. La arqueología del Santuario de Santa María del Yermo»



# ERMUALDEKO HISTORIA-JARDUNALDIAK

## Jornadas de Historia de Ermualde

**LEKUA / LUGAR:**
Santa María del Yermo (Laudio)
**ORDUA / HORA:**
18:30

**Antolatzaileak: Laudioko Udala / Aunia Kultura Elkartea**

## Urriak 23 octubre

IÑAKI GARCÍA CAMINO
«En las brumas de la historia: una iglesia en tierra yerma»

## Urriak 30 octubre

ASIER PÉREZ DE EULATE
«Ermualde 1836: a la sombra de los cañones carlistas»

**Leku mugatuak.**
**Ezinbestez izena eman behar da aldez aurretik (irailaren 20tik aurrera)**

**Plazas limitadas.**
**Es imprescindible la inscripción previa (a partir del 20 de septiembre)**

i

944 034 890
euskara@laudio.eus